



PRENTSA DOSSIERRA

Biodonostiak, Euskadiko lehenengo osasun ikerketako institutuak, lehentasuna ematen dio ikerketa traslazonalari, pazientearen gainean fokua jarrita eta Gipuzkoako lurraldean– Osakidetza eremuan– egiten ari den ikerketa guztiari estaldura ematen dio, lankidetzaz egiturarekin kolaboratiboarekin, erakunde askoren artekoa, eta diziplina anitzarekin, hori guztia lurraldeko herritarren osasuna hobetzarren.

Ikerkuntza, garapen eta berrikuntzako (I+G+B) zentroa da, nazioarte eta estatu mailako bikaintasuneko jardura zientifikoak burutzen dituena, praktika klinikoari eta inguruko enpresaritzaz gainera. Erabilera komuneko metodologiak zein egiturak zentralizatzen ditu ikerlarien zerbitzura, eta giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa ekonomiko eta administratiboak bere gain hartu ditu.

Bere baloreen artean zera daude, bikaintasun zientifikoa, integrazioa, efizientzia eta sostengarritasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, emaitzak praktika klinikoari lotzea eta gizartearentzako prestakuntza, difusioa eta harenganako onuren itzultzea.

2008. urtean sortua, ikerlarien, erakunde publikoen eta finantza lagundu duten beste erakunde batzuen konpromisoari zor zaio. 2010eko azaroan inauguratu zen eta Carlos III.ak aitortu zion ikerketa-institutuaren ziurtagiria 2011. urtea bukatu baino lehen, estatu espainiarreko osasun institutuaren elitera sartuz horrela.

Giza baliabideen artean **300 ikerlari baino gehiago ari dira lanean 22 taldetan, 7 lan-lerro besarkatuz**, ikerketa antolatzen ari delarik aurrerakuntza zientifikoak bultzatuz eta Gipuzkoako eragile teknologikoak batuz –zeina baita institutuaren bereizle esanguratsua estatuko gainerako ikerketa institutuaren aldean–.

Donostia Unibertsitate Ospitalea da erreferentzia-gunea eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Osakidetza, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bio Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak parte hartzen dute Institutuan.

Institutuaren berezitasuna gainerako osatzaileen ezaugarrietan era badatza, haren partaideen artean honako hauek ere baitaude: **VICOMTech, CIC microGUNE, Cidetec, Osatek, INBIOMED eta INGEMA.**

Beste erakunde batzuek ere hitzarmenak sinatu dituzte institutuarekin haren gobernu-egituran sartu gabe, hala nola, beste batzuen artean, CIC nanoGUNE, CIC biomaGUNE, Onkologikoa, BCBL, Euskampus eta Gipuzkoako Poliklinikako Dr. Carlos Elosegui Fundazioa.

Aparteko aipamena merezi du IKERBASQUE Fundazioak, zeinaren bitartez lortu baita ikerlarien kopurua handitzea, nazioarteko prestigidun zientzialariak bertara erakarri.

Institutuaren lan-lerroak hauexek dira: mikro eta nanobioteknologiak, biomaterialak, irudi molekularra, ikus-entzunezko teknologiak, osasun elektronikoa, gerontologia, eta kognizioa, burmuina eta lengoia.

Biodonostia Ollak zera izan nahi du, nazioarteko erreferentzia-zentroa ikerketa sanitarioan, eta bereziki bultzatzen du berrikuntza teknologia mediko eta sanitarioetan, sistemaren euskortasuna bermatzeko, gainera ITEMASen (Teknologia mediko eta sanitarioetako berrikuntza-sarearen) barruan dago, egitasmo horretako 14 nodoetako bat delarik.

IKERKUNTZA ALORRAK

Biodonostia Ollak bost ikerkuntza-lerro bertikal ditu eta bi horizontal.

- Bertikalak dira:

Neurozientzien arloa, gibekeko eta urdail-hesteetako gaixotasunen arloa, gaixotasun infektzioetako arloa, Onkologiako arloa, eta kirurgia eta beste gaixotasun sistemikoetako arloa.

- Horizontalak dira:

Epidemiologia eta osasun publikoa, eta Bioingeniaritza.

LANKIDETZAREN SUSTAPENA

Lankidetzak nazioarte eta estatu mailakoak dira. Estatu mailako lankidetzak dira hurrengoak: ITEMAS teknologia mediko eta sanitarioetako berrikuntza-sareko partaidetza, Bartzelonako *Clinic* ospitalearekiko hitzarmena eta Parc Tauli fundazioarekikoa.

Nazioarte mailan aipatzekoak dira, besteak beste, zazpi erakunderen arteko partaidetza duen Ikerkuntza Biomedikorako Mugen zeharreko Pirinioetako Sarea (RefBio), Europan ikerkuntza-egitasmo lehiakorrek sustatzeko. Parkinsonen gaixotasunaren ikerkuntzarako Michael J. Fox Fundazioarekiko lankidetzak parkinsonaren ikerketan sakontzeko. AEBetako Minnesotako (Rochester) Mayo klinikarekiko lankidetzak eta herrialde bereko hainbat unibertsitatearekiko lankidetzak, hala nola, Kaliforniakoa, Washingtonkoa, Indianakoa, Pennsylvaniakoa eta Columbiakoa.

SARIAK

Biodonostiak jaso berri ditu bi sari garrantzitsu, bikaintasunaren adierazle hobezinak direnak. Sabadell-Guipuzcoano banketxeko fundazioaren saria, ikerkuntza-beka batekin hornitua, zeinaren bitartez ikerketa-zentroak profesional teknikoak kontratatuko baititu animaliategian eta klinika-aurreko ebakuntza-gelan lan esperimentaletan lan egiteko, eta MIhealth Innovation Awards saria ezagutzaren arloan, MikroARNen puskak erabiltzeagatik estrategiari zor zaiona, esklerosi anizkoitzaren biomarkagailua gisa.

Donostian, 2013ko uztailaren 17an